



Jasangarritasunerako eta ongizaterako ibilbideak

22 - 26 ABUZTUA

Fernando Remacha ikasgela, Sario eraikina, NUP

- Osasun Zientziak
- 💬 Gazteleraz
- 📖 Kredituak: 0.5
- 📋 30 plazas
- € 15
- 🎓 18 ordu
- 📍 NUP-Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- 📌 Bukatuta, Concluido
- 📅 2022ko abuztuaaren 18a arte

Ikastaroan arakatuko dugu natura nola bihurtzen den aliatua emakumeen ibilbide biografikoetan, bizitzako esperientziei eta horrek sortzen dituen ziurgabetasun eta dudamudekin zerikusia duten auziei buruzko iritziak konparatzeko eta jakin-mina elikatzeko.

Horretaz gainera, astia hartuko dugu gorputzaren bidez sormena eta izatearekiko eta bilakaerarekiko konexioa sentitzeko. Izan ere, gorputzaren bidez bizipenak izateak aukera emanen digu nolakoak garen eta munduan nola jokatzeko dugun hobeki ulertzeko prozesuetan murgiltzeko.

Kultura baten baino gehiagoren ikuspegitik begiratuko diogu gaiari konexio berriak sortzeko, talde loturak eta bilakaeraren ingurukoak, zeinak lagungarriak izanen baitzaizkigu bizi-egoera on batzuetara iristeko; bizitzak dar-dar eragiten digula sentitzeko eta bizitzaren erritmoan ibiltzeko, prozesu zehatzetatik abiatuz bizitzaren beraren dimentsioetan barrena. Azkenik, musikaren eta arteen bidez bizipen kontzientea eta gozamen estetikoa arakatuko ditugu, eta ikusiko dugu nola laguntzen dioten berdintasunari; bestetik, hitzekin ere gozatuko dugu, eta ikasiko dugu hitzaren bidez bidaian aurrera egiten esperimendazio poetikoko eta aldaketa sozialeko norabide berriak moldatzeko.

NORENTZAT

Ikastea maite dutenentzat, irakasle, ikasle, kudeatzaile, osasunaren arloko langile, kazetari, publizista, zuzenbidearen arloko profesionalentzat eta abarrentzat, baldin eta sormena eta hazkuntza pertsonala eta/edo profesionala lantzeko kondizioak eratu nahi badituzte.

HELBURUAK

- Astia hartzea geure buruari entzuteko, gorputzaren, buruaren eta emozioen arteko loturak ezarriz eta landuz; hala, ohartuko gara lotura horiek batasunean egoten laguntzen digutela eta dakiguna aktibatzen dutela
- Diziplina artistikoak generoan oinarrituz arakatzea garen horretara iristeko bidaide izanen dugun sormena esperimendatzeko
- Espiritualtasunaren bizipenari kultura batetik baino gehiagotatik begiratzeko gure ikuspegia zabaltzea

IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Ana Aliende Urtasun, NUPeko Soziologiako eta Gizarte Laneko Saileko irakaslea

Ana Ansa Ascunce, medikua eta foru parlamentaria

ASTELEHENA 22 ABUZTUA

10:00 Hitzaldia

Zergatik da garrantzitsua gaur inoiz baino gehiago gure izaerarekin konektatzea?

Itziar Insausti Mujika, basoko terapiako gidaria, antropologoa, artista eta hezitzailea

12:00 Hitzaldia

Mendia, buruaren gozagarri

Juanjo Garbizu Areizaga, diseinatzailea, idazlea eta mendizalea

ASTEARTEA 23 ABUZTUA

10:00 Hitzaldia

Nondik jaiotzen da bertsoa? Nola iristen da ahora?

Julio Soto Ezkurdia, bertsolaria

12:00 Hitzaldia

Kontrako eztarritik: nola iritsi bertsoa emakume gorputzetik?

Uxue Alberdi Estibaritz, idazlea eta bertsolaria

ASTEAZKENA 24 ABUZTUA

10:00 Tailerra

Nire gorputza, nire betiereko izaeraren ataria

Miren Portillo Ciriza, terapeuta psikokorporala eta transpertsonala. Terapia Okupazionalako graduduna, eta Psikomotrizitateko masterduna

12:00 Tailerra

Gorputz lirikoaren artea

Eloina Aarras, gorputzaren psikoterapian eta dantzaterapian trebatua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustatzailea

Antonia Lazcoz Urtasun, Espainiar Literaturako eta Hizkuntzako lizentziaduna

OSTEGUNA 25 ABUZTUA

10:00-13:30 Tailerra

Hatsetik begiradara: idazketa intimoa erritual gisa

Olga Fajardo, “La escritura como camino” ekimenaren zuzendaria (hizkuntza,

isiltasuna eta espiritualtasuna), hezkuntzako proiektuetan aritua eta kontenplazio gaien editorea

OSTIRALA 26 ABUZTUA

10:00-13:30 Tailerra

Zentzumenen poetika

Gabriel Hernández, Teatro de los Sentidos taldearen zuzendari laguntzailea

ANTOLATZAILEA

NUPeko Bizitza Eskola



LAGUNTZAILEA

Nafarroako Gobernua